



TOKIKO AGENDA 21AREN EKINTZA PLANA

Udalerria: Zigoitia

Izenburua / Título:	TOKIKO AGENDA 21AREN EKINTZA PLANA. Zigoitia			
Egileak / Autores:	Paisaia, Gestión y Ordenación del Paisaje, S.L.			
Hartzaileak / Destinatarios:	Zigoitiako Udala			
Edizioko data / Fecha de edición:	2011ko martxoaren 7an			
Itzulpena / Traducción				
Orriak / Páginas:	22			
Bertsioa / Versión:	PAL-ZI-1.0eu			
Erreferentzia / Referencia:				
Proiektuaren hasierako data / Fecha de comienzo del proyecto:				
Iraupena / Duración:				
Bertsioen historia / Historial de las versiones:	Bertsioa / Versión	Data / Fecha	Ekintza / Acción	Oharrak / Notas

EKINTZA PLANA EGITEN PARTE HARTU DUTEN PERTSONA ETA ERAKUNDEAK ¹

UDALEKO ARDURADUN POLITIKOAK

- Nuria Lopez de Letona Alkatea
- Silvia García González Zinegotzia
- Juan Miguel Mimenza Zinegotzia
- Eduardo Lorza García Zinegotzia
- Amaia Sáez de Cámara Zinegotzia
- Natividad Amestoy Zinegotzia
- Mertxe Aldai Zinegotzia
- Pedro Ruiz de Erenchun Zinegotzia

BATZAR ADMINISTRATIBOAK

- Raúl Argote Ochoa de Eribe Akostako Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Karmele López de Sosoaga Apodakako Batzar Administratiboko Lehendakaria
- José Espino Díaz Berrikanoko Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Jose Roberto Lopez de Uralde Buruagako Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Maite Rubina Ochoa de Eribe Eribeko Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Mikel Las Heras Etxabarri-Ibiñako Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Maria Soledad Hernando Etxaguengo Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Manuel Prudencio Sáez de Castillo Gopegiko Batzar Administratiboko Lehendakaria
- José Martínez de Zestafe Letonako Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Francesc Riera Manurgako Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Elena Sagaseta Mendarozketako Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Maria Lourdes Alonso Olanoko Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Juan Miguel Mimenza Ondategiko Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Aitor Arbina Zaitegiko Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Alberto Usaola Zestafeko Batzar Administratiboko Lehendakaria
- Oscar Alonso López de Letona, Zaitegiko Batzar Administratiboko ordezkaria
- Ines Otaduy Olanoko Batzar Administratiboko ordezkaria

¹ Kontuan izan dokumentua idazten hasi zentik zerrenda honetan aipatzen den pertsonaren batek adierazten den postua/kargua utzi ahal izan duela.

UDAL TEKNIKARIAK

- Ziortza Guinea Udal Idazkaria
- Zuriñe Zabala Kultura Teknikaria
- Manex Agirre Euskara Teknikaria
- Estibaliz Bolinaga Gizarte Langilea
- Isabel Arberas, Zigoitiako Uren Kontsorzioa
- Adolfo Moro Quintana, Arkitektoa, Udal aholkularia
- Luis Casado Tokiko Agenda 21eko Teknikaria

UDAL ELKARTE ETA TALDEAK

- Dominizubi Elkarte
- Zubialde Emakumeen Kultur-Elkarte
- Arabako Espeleologia Taldea
- Kirikio Euskara Taldea

UDALAZ GAINEKO ERAKUNDEAK

- Jon Ezkurdia Gorbeako Inguruen Partzuergoaren Idazkaria
- Oihana Martinez Lan eta Ekonomiaren Sustapenaren Teknikaria

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

PAISAIA, S.M.

- Miren Askasibar Bereziartua. Koordinazioa. Biologian Lizentziatua eta Paisajista

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	6
1.1. Tokiko Ekintza Planaren osaketa-lanak	6
1.2. Tokiko Ekintza Planaren jarraipena eta urteko programazioaren inguruan ohar laburrak	8
2. TOKIKO EKINTZA PLANA.....	9
2.1. Udalerrirako finkatutako ikuspegia eta xedeak.....	9
2.1.1. Ikuspegia	9
2.1.2. Xedeak.....	9
2.2. Tokiko Ekintza Plana	10
2.2.1. Tokiko Ekintza Planaren egitura	10
2.2.2. Zigoitiako Tokiko Ekintza Planaren edukiak	10

1. SARRERA

1.1. Tokiko Ekintza Planaren osaketa-lanak

Tokiko Ekintza Plana ondoko eragileen parte-hartzearekin egin da: Udaleko teknikari nahiz ordezkari politikoak, Batzar Administratiboak, Zuiako Taldeko teknikariak, eragile sozialak, eta herritarrak. Udaleko ordezkari politikoez, eta Batzar Administratiboek Tokiko Agenda 21aren Batzordearen baitan hartu dute parte, Udaleko eta Zuiako Taldeko teknikariek udaleko Tokiko Agenda 21eko koordinatzailearen bitartez hartu dute parte, eta herritarrek herri batzar edo foro baten bidez.

Herri batzarra deitu aurretik, Tokiko Ekintza Planaren eskemaren zirriborro bat osatu zen, ondoko informazioa abiapuntutzat hartuz: Diagnostikoko jarduerarako eremu-lehenetsietatik eratorritako ekintzak, udaleko eta Zuiako taldeko teknikarien ekarpenak, Administrazio Batzarren ekarpenak, eta Udaleko ordezkari politikoen ekarpenak.

Herri batzarra 2010eko abenduak 16an ospatu zen. Guztira 16 pertsonak hartu zuten parte, Udaleko eta Batzar Administratiboetako ordezkariak barne. Foroan bi gai landu ziren bereziki: Tokiko Ekintza Planaren eskemako programen artean lehentasunak finkatzea, eta ekintzen inguruan eztabaidatu eta ekarpenak egitea. Ondoko taulan lehentasunak finkatzeko ariketaren emaitzak jasotzen dira.

PROGRAMA	PUNTUAKETA	GUZTIRA
1.1 Herritarren arteko harremana eta herriaren aldeko atxikimendua sustatzea	$3*1+2*1+1*2=$	7
1.2 Herritarren sentiberatzea eta elkartasuna bultzatzea	$3*2+2*1+1*4=$	12
2.1 Zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza egokitzea, osasuna, gizartea eta hezkuntzari dagokienez	$3*10+2*1+1*0=$	32
2.2 Bideragarritasuna eta errentagarritasuna hobetzeko asmoz, merkataritza-gunetik kanpoko saltoki eta ostalaritzaren ekimenak bultzatu eta lagundu	$3*0+2*2+1*1=$	5
2.3 Herritar guztiei egokitutako jarduera eta espazioak eskaini aisia eta kirolerako	$3*2+2*3+1*1=$	13
2.4 Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKTak) herritar guztien eskura jarri	$3*0+2*2+1*0=$	4
2.5 Herritar guztiek banku- eta posta-zerbitzu egokiak dituztela bermatzea	$3*2+2*4+1*2=$	13
3.1 Landatartasuna udal plangintzan txertatzea	$3*1+2*0+1*2=$	5
3.2 Udalerriaren izaera landatarra kontserbatzea, baita auzo bakoitzaren nortasuna ere	$3*1+2*2+1*5=$	12
3.3 Zigoitiako ondare historiko-kulturala kontserbatzea eta balioan jartzea	$3*1+2*2+1*5=$	12
3.4 Euskaraz geroz eta gehiago bizitzea	$3*6+2*5+1*0=$	28
4.1 Barneko eskariari egokitutako etxebizitzaren eskaintza lortzea	$3*2+2*4+1*1=$	15
4.2 Iraunkorra den etxebizitza-parkea egotea sustatzea	$3*2+2*1+1*1=$	9
5.1 Kalitatezko espazio ireki publikoak edukitzea	0	0
5.2 Hondakinen bilketa ondo kudeatzea, eta bide garbikuntza egokia izatea	$3*3+2*4+1*1=$	19
6.1 Jarduera ekonomikoek ingurumena errespetatu dezaten bultzatzea	$3*0+2*1+1*3=$	5
6.2 Arrisku natural eta teknologikoak aurreikustea	$3*1+2*0+1*1=$	4

PROGRAMA	PUNTUAKETA	GUZTIRA
6.3 Zarata, aire, ur eta lurzoruei dagokienez, goreneko kalitatea bilatzea Zigoitian	$3*1+2*2+1*3=$	10
6.4 Herritarren segurtasuna bermatzea	$3*4+2*4+1*2=$	22
7.1 Herriguneetako eta hauen arteko, nahiz udalerritik kanpoko mugikortasunean, ibilgailu partikularren erabilera suposatzen ez duten aukerak garatu	$3*6+2*3+1*0=$	24
7.2 Bide sarea egoera onean mantentzea	$3*1+2*1+1*6=$	11
7.3 Istripuak gutxitzea udalerrian	0	0
7.4 Mugikortasun segurua eta lasaia bermatzea	$3*3+2*3+1*3=$	18
7.5 Zigoitiako herriguneetan eta eraikin publikoetan irisgarritasuna hobetzea	$3*1+2*2+1*1=$	8
8.1 Natura eta paisaiaren balioak ezagutzea, eta hauek kontserbatzeko helburu eta neurriak finkatzea	$3*1+2*3+1*3=$	12
8.2 Zigoitiako natura eta paisaiaren balioek jasaten dituzten inpaktu, mehatxu eta arriskuei aurre egitea	$3*0+2*1+1*0=$	2
8.3 Zigoitiako natura eta paisaiaren balioen antolamendu eta kudeaketan aktiboki parte hartzea	$3*4+2*2+1*1=$	17
9.1 Uraren kontsumoa murriztea, eta erabili ondoren garbi bueltatzea; honela bakarrik izango da baliabide berriztagarri	$3*2+2*2+1*0=$	10
9.2 Energia kontsumoa gutxitzea, eta energia berriztagarrien ekoizpen eta erabilera handitzea	$3*2+2*0+1*4=$	10
9.3 Onura publikoko mendiak iraunkortasuneko irizpideekin kudeatzea	$3*0+2*2+1*1=$	5
10.1 Udalerrian enplegu kalifikatua eta kalitatezkoa sor dadin bultzatzea	$3*4+2*1+1*2=$	16
10.2 Jarduera ekonomikoak dibertsifikatzea, bertako ekimenak sustatzea, eta udalerriko jarduerari balio erantsia ekarriko dieten hobekuntzak bultzatzea	$3*1+2*1+1*5=$	10
11.1 Udaleko gaietan herritarren partaidetza sustatzea, gorpuztea eta arautzea	$3*0+2*2+1*1=$	5
11.2 Udala eta Administrazio Batzarren arteko koordinazio eta lankidetzak egokiak ziurtatzea	$3*5+2*3+1*1=$	22
11.3 Eskualde mailako sinergiak erraztea	$3*0+2*2+1*0=$	4
11.4 Udal plangintza eta kudeaketan iraunkortasun irizpideak sartzea, eta iraunkortasuneko gaietan giza-baliabide minimoak bermatzea	$3*0+2*1+1*0=$	2
Zigoitian burututako herritarren parte hartzerako foroan programei emandako lehentasun-maila		

Herritarren partaidetza bideratzeko ospatutako foroan eztabaidatu zen zirriborroko ekintzen inguruan herritarrek egin zituzten ekarpenak, dokumentuaren bigarren zirriborro bat osatuz integratu ziren. Udala eta Batzar Administrazioaren ordezkariak dituen Tokiko Agenda 21eko Batzordean bigarren zirriborro hau eztabaidatu ondoren, dokumentu honetan jasotzen den Tokiko Ekintza Plana osatu zen.

Tokiko Ekintza Plana osatzen joan den epean, argi geratu da honek dituen ekintzen kopurua IHOBEEK gomendatzen duena gainditzen duela. Ondorioz, Ekintza Planak jasotzen dituen ekintza guztiak burutzea zaila izango da, are gehiago egungo krisiaren baitan. Lehentasun gutxiagokoak diren ekintzak eranskin batera eramatearen aukera aztertu da, urtero egingo diren ebaluazioetan bertatik ekintzak berreskuratu ahal izateko. Hala ere,


Tokiko Ekintza Plana onartzeko orduan eranskin hori ez sortzea erabaki da, eta aukera hau urteko lehen ebaluatzea egiteko momentuan aztertuko da.

1.2. Tokiko Ekintza Planaren jarraipena eta urteko programazioaren inguruan ohar laburrak

Tokiko Ekintza Plana onartzen denean, berau burutzeko finkatzen den zortzi urteko epeari hasiera ematen zaio. Tokiko Ekintza Planaren kudeaketa errazteko, eta bere garapena ahalik eta gehien errazteko, Udalak hainbat baliabide tekniko eta aholkularitza eskura ditu Udalsarea 21aren baitan (jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea). Jarraipena eta urteko programazioa egiteko erabiliko den tresna nagusia MUGI 21 izeneko tresna informatikoa da, Udala Udalsarea 21ean sartzen denean instalatuko dena.

Udalsarea 21eko Web orrian jarraipena eta urteko programazioari buruzko argitalpen eta dokumentuak aurki daitezke, informazio zehatzagoa jasotzen dutenak.

Ondoren, urtero burutuko diren lanak jasotzen dituen eskema bat erakutsiko dugu soilik, Tokiko Ekintza Planaren urteko ebaluazioan herritarren partaidetza integratzea komenigarria dela gogoraraziz.



Tokiko Ekintza Planaren urteko kudeaketaren zikloa.

Iturria: IHOBE. 2006. Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21-en Ekintza Planen urteko programaziorako eta ebaluaziorako gida metodologikoa. Ingurumen Estrategiaren Agiria Saileko 60. zk.

2. TOKIKO EKINTZA PLANA

2.1. Udalerrirako finkatutako ikuspegia eta xedeak

Tokiko Ekintza Plana landu den aldi berean, udalerrriak datozen zortzi urteetarako planteatzen duen ikuspegia eta xedeak finkatzen joan dira.

2.1.1. IKUSPEGIA

2020. urtean, herritarrek komunitate aktibo, dinamiko, partehartzailea eta herrien artean kohesionatuta osatzen dute, eta eguneroko bizitzarako beharrezko zerbitzuak dituzte udalerrrian bertan. Herritarrek kontserbazio egoera onean dagoen ingurune natural atsegina edukitzetik etekina ateratzen dute, udalerritik oinez edo bizikletaz mugitu ahal izateaz gain, horretarako egokitutako lekuak dituztelarik. Udalerrriak egoera sozial eta ekonomiko onuragarria du.

2.1.2. XEDEAK

1. Uraren etxeko kontsumoa biztanle eta eguneko 115 litroz azpikoa izatea lortzea.

Zergatiaren azalpena: Udaletik industriaren kontsumoan eragitea zaila denez, xedea etxeko sektorerara mugatzen da. Egun, uraren kontsumoko datua 353 l/bizt/egun da (ustiapenen kontsumoak barne, kalkulutik ateratzea lortu beharko litzatekeena), eta xedearen erreferentzia Udalsarea 21eko udalerrrien bataz bestekotik abiatuz ezartzen da. Xedeak erronka bat suposatzen du, baina printzipioz, lor daitekeela dirudi.

2. Oinezkoentzat eta bizikletentzat egokia den 10 kilometroko luzerako sare seinaleztatu bat izatea.

Zergatiaren azalpena: oinezkoen eta bizikleten mugikortasunari lotutako hainbat ekintza dago, baita proposamen zehatzak konpondu/seinaleztatu beharreko ibilbideen inguruan. Beraz, nahikoa sentiberatze eta motibazio sumatzen da gaiaren inguruan helmuga bat planteatzeko. Arabako landa-eremuko partzela-bideen luzera handia eta herrien sakabanaketa kontuan izanda, oinez/bizikletan mugikortasuna bultzatu nahi bada, finkatutako baliora iristeko arazorik ez litzateke egon behar. Gainera, balio baxuago batek ezingo luke oinezkoen eta bizikleten mugikortasun eraginkorra bermatu.

3. Industriatik kanpoko elektrizitate-kontsumoa %25ean gutxitzea.

Zergatiaren azalpena: urteko industriatik kanpoko elektrizitate-kontsumoak Arabako bataz bestekoa askogatik gaintzen du (10.614 KWh/bizt Zigoitian, Arabako 3.221,72-ren parean 2009. urtean). Bestetik, egoki ikusten da xedea etxeetako kontsumora mugatzea, industriarena Udalaren esku ez dauden hainbat faktoreren baitakoa da eta. Balioak azken urteetan beherako joera izan duela kontuan izanda, eta argiteriaren hobekuntzarako nahiz sentiberatzeko ekintzak aurreikusita daudenez, gutxienez finkatutako xedea lortzea posible dela uste da. Zorrotzagoa den xederik ez finkatzea egoki ikusten da, ez baita ezagutzen kontsumo hain handiaren arrazoa zein den. Udaltalde 21aren baitan oraindik altuagoak diren datuak daudela ikusita, guneen sakabanaketak eta eraikuntzen dentsitate baxuak balioan zerikusi handia izan dezaketela uste da, argiteria publikoak pisu handia izan dezakeelarik.

4. Udal gaietan herritarren partaidetzarako sistema bat izatea abian eta kontsolidaturik.

Zergatiaren azalpena: udalerriko ikuspegian hain garrantzitsu diren gizarte gaien gaineko xedeak finkatzea ez da erraza. Hori dela eta ezartzen da xede hau, Udal gaietan herritarren partaidetzarako sistema bat izatean datzana, Kontzejuetatik Batzordeetan edota Udalbatzetan tratatuko diren gaiak proposatu eta azaltzea erraztearen bitartez, nahiz beste tresna batzuen bitartez (adibidez, Auzo-Kontseilu bat sortuz), eta Zigoitiako gizarte-dinamikan eta herritarren parte hartzean aldaketak ekarriko dituen.

2.2. Tokiko Ekintza Plana

2.2.1. TOKIKO EKINTZA PLANAREN EGITURA

Diagnostikoan aurkitutako gabeziei erantzunez iraunkortasunaren bidean aurrera egiteko helburua du Tokiko Ekintza Planak. Horretarako, hiru mailatan egituratzen da:

1. **Lerro estrategikoak:** udalerriak bilatzen dituen helburu zabal eta nagusien zerrenda da, denbora epe luze baterako mantenduko direnak.
2. **Programak:** Lerro Estrategikoek finkatzen dituzten helburu orokorrak burutzen lagunduko duten helburu zehatzagoak, ekintzak gauzatu ahala alda daitezkeenak.
3. **Ekintzak:** helburuak lortzeko gauzatuko direnak, zehaztasun handiz azaltzen direnak (deskribapena, burutzeko epea, lehentasun maila, kostua, jarraipenaren pertsona arduraduna, eta abar). Ekintza bakoitzean azpi-ekintza konketuak adierazi daitezke.

2.2.2. ZIGOITIAKO TOKIKO EKINTZA PLANAREN EDUKIAK

Dokumentu honen ondoko orrietan Tokiko Ekintza Planeko ekintzak jasotzen dira, dagozkien Ildo Estrategiko eta Programetan antolatuta.

ILDOA	PROGRAMA	EKINTZA	RESPONSABLE/ ARDURADUNA	CORRESPONSABLE/ ERANTZUNKIDE	PLAZO/EPEA	PRIORIDAD/ LEHENTASUNA
IE.1 HERRI BIZI, PARTIZIPATIBO, SOLIDARIO ETA ELKARTUA SUSTATZEA	1.1 Herritarren arteko harremana eta herritaren aldeko atxikimendua sustatzea	1.1.1. Udalerriko Bigarren Hezkuntzako ikasleek zentro berdinerara joan daitezen beharrezkoak diren pausuk eman, Zuiako zentroari lehentasuna emanez, behin eraikita dagoenean.	Alkatetza		Largo-Luzea	Media-Ertaina
		1.1.2 Udalerriko talde eta elkarte anitz eta aktiboetatik eta Udaletxetik jarraitu eskolaz kanpoko kirol, kultura eta euskararen sustapenerako ekintzak antolatzeko lan zabalarekin.	Kulturako Teknikaria	Euskara Teknikaria	Medio-Ertaina	Alta-Altua
		1.1.3. Eskolaz kanpoko iharduerak indartu betetzen dituzten bi eginkizunen inguruan: udalerriko ume eta nerabeen arteko harremanak sendotu eta euskararen erabilpena indartu.	Kulturako Teknikaria	Euskara Teknikaria	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
	1.2 Herritarren sentiberatzea eta alkartasuna bultzatzea	1.2.1. Udalerrian erroladatuta egotearen garrantziari buruzko sentsibilizazio ekimenak burutu herritarrek sentikortzeko eta neurri ezberdinez eroldaketa sustatzeko aukerak aztertu.	Alkatetza		Corto-Motza	Media-Ertaina
		1.2.2. Hamazazpi udal aldizkarian iraunkortasun arloan sentsibilizazio artikulua noizbehinka argitaratzen jarraitu.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Corto-Motza	Media-Ertaina
		1.2.3. Haur eta gazteentzat zuzenduriko sentsibilizazio ekimenak garatu berdintasunaren inguruan.	Kulturako Teknikaria		Medio-Ertaina	Baja-Baxua
IE.2 HERRITARREN EGUNEROKO BEHARRAK UDALERRIAREN BAITAN ASETZEA	2.1 Zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza egokitzea, osasuna, gizarte eta hezkuntzari dagokienez	2.1.1. Udalerriko Gizarte Zerbitzuaren lan zabalarekin jarraitu.	Gizarte Langilea		Corto-Motza	Baja-Baxua
		2.1.2. Egoitza publiko bat sortu udalerrian.	Alkatetza		Largo-Luzea	Alta-Altua
		2.1.3. Mediakuaren zerbitzuarekin izandako kexa eta gorabeheren inguruko datu objetiboak eskatu Eusko Jaurlaritzari.	Alkatetza	Idazkaritza	Medio-Ertaina	Alta-Altua
		2.1.4. Osasun Txartelan egoitza datuak eguneratzearen garrantziaren inguruko sentsibilizazio ekimenak garatu.	Alkatetza		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		2.1.5. Beste herrietan bizi diren herritarrek Ondategin kokatzen diren gizarte eta osasun zerbitzuetara iristeko duten erraztasuna aztertu.	Alkatetza		Medio-Ertaina	Baja-Baxua
		2.1.6. Udalerriko osasun zerbitzuak handitzeko Comarcarekin lanak egiten jarraitu.	Alkatetza	Gizarte Langilea	Corto-Motza	Alta-Altua
		2.1.7. Etxabarri-Ibiñako ikasleei Zigoitiako udalerriko hezkuntza zentroak egokitzeko, eta ez Gasteizkoak, gaur egun gertatzen den bezala, Eusko Jaurlaritzara egindako eskaeraren jarraipena egin.	Etxabarri-Ibiñako Batzar Administratiboa	Alkatetza	Corto-Motza	Alta-Altua

ILDOA	PROGRAMA	EKINTZA	RESPONSABLE/ ARDURADUNA	CORRESPONSABLE/ ERANTZUNKIDE	PLAZO/EPEA	PRIORIDAD/ LEHENTASUNA
IE.2 HERRITARREN EGUNEROKO BEHARRAK UDALERRIAREN BAITAN ASETZEA	2.2 Bideragarritasuna eta errentagarritasuna hobetzeko asmoz, merkataritza-gunetik kanpoko saltoki eta ostalaritzaren ekimenak bultzatu eta lagundu	2.2.1. Oinarrizko produktu/zerbitzuez ornitzeko establezimendu minimo baten existentzia erraztu, bertako merkataritza ekimenak lagunduz, beraien bideragarritasuna eta errentagarritasuna hobetzeko eta beraien sustapena lortzeko neurriak jarritz.	Alkatetza	Hirigintza Antolamendurako Batzerde Aholkutzaila	Largo-Luzea	Media-Ertaina
		2.3.1. Udalerriko gazte eta nerabeei zuzendutako aisialdi eskaintza eta azpiegiturak hobetzeko aukerak aztertu.	Kulturako Teknikaria		Largo-Luzea	Media-Ertaina
		2.3.2. Haurren jolaserako zonaldeen eskaintza dagoen eskaerara agokitzen den aztertu.	Alkatetza	Hirigintza Teknikariak	Corto-Motza	Baja-Baxua
		2.3.3. Kultur eta kirol guneen eskaintza aztertu eta hobetu.	Kultura Batzerdea	Alkatetza	Largo-Luzea	Media-Ertaina
		2.3.4. Udaletxe eta udalerriko elkarte eta taldeek antolatzen dituzten ihardueren arteko koordinazioa hobetzeko bideak bilatu eskaintza kulturala ugaria eta orekatua izan dadin urtean zehar.	Kultura Batzerdea		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		2.3.5. Batzar Administratiboetan burutzen diren kirol, kultura eta eskulan kurtsuak diruz laguntzen jarraitu Udaletxetik, betiere ezarritako betebeharrak betezen dituztenean (parte hartzaileen kopurua, eta abar).	Kulturako Teknikaria		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		2.3.6. Ondoko Udalerrien Udaletxe eta Batzar Administratiboekin harremanak sistematizatu kirol eta kultura instalazioen erabilera partekatze auzerak aztertzeko, udalerrri bakoitzak egiten dituen inbertsioei probetxu handiena atera ahal izateko eta herritarrei zerbitzu hobekak eskaini ahal izateko.	Alkatetza	Kultura Teknikaria	Largo-Luzea	Media-Ertaina
		2.3.7. Zigoitia Aretoan Panta Rhei antzerki taldearen egoitza mantendu	Kulturako Teknikaria		Medio-Ertaina	Baja-Baxua
		2.3.8. Udaletxea eta Batzar Administratiboekin artean dagokien balorazioa egin eta gero, kirol ekipamendu eta instalazioak hobetzeko eta inbertsio Plan bat idatzi.	Batzar Administratiboekin Harremanetarako Batzerdea		Largo-Luzea	Media-Ertaina

ILDOA	PROGRAMA	EKINTZA	RESPONSABLE/ ARDURADUNA	CORRESPONSABLE/ ERANTZUNKIDE	PLAZO/EPEA	PRIORIDAD/ LEHENTASUNA
IE.2 HERRITARREN EGUNEROKO BEHARRAK UDALERRIAREN BAITAN ASETZEA	2.4 Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKTak) herritar guztien eskura jarri	2.4.1 Interneteko konexioak eta udalerriko leku batzuetan telefono mugikorraren estaldurarekin ematen diren arazoak iturria aztertu, parte hartutako moduan irtenbide egokiena aurkitu ahal izateko aurrepauzu bezala.	Hirigintza Teknikariak		Largo-Luzea	Baja-Baxua
		2.5.1. Banku entitate bat edo gehiagok udalerrian bulegoak jartzeko eta Zentro Komertzialetik kanpo kutzazainak jar dezaten beharrezkoak diren lanak egin.	Alkatetza	Idazkaritza	Corto-Motza	Alta-Altua
	2.5.2. Vital Kutzaren bulego mugikorraren ordutegia hobetu dezatela eskatu.	Alkatetza	Idazkaritza	Corto-Motza	Media-Ertaina	
	2.5.3. Correos Zigoitiako herritarrei eskaintzen dien zerbitzua hobetzeko beharrezkoak diren gestioak egin.	Alkatetza		Corto-Motza	Media-Ertaina	
	2.5 Herritar guztiek banku- eta posta-zerbitzu egokiak dituztela					
IE.3 BERTAKO IZAERA PROPIOIA KONTSERBATZEA	3.1 Landatasuna udal plangintzan txertatzea	3.1.1. Gailentzen den familiabakarreko etxebizitzaren tipologia buruz eta aurreikusitako bizitegi hazkunde handien eraginaren inguruan hausnartu, Hirigintza Antolamenduen Plan Orokor Berriaren idazte prozesuan.	Hirigintza Antolamendurako Aholkularitza Batzordea		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		3.1.2. Hiri Antolamendurako Plan orokor berriaren udalerrian landa izaera eta osatzen duten herrien nortasuna mantentzeko irizpide eta neurriak sartu, garapen berrientzat balio handiko lurren eskaintza txikituz eta herri ezberdinen ezaugarriei hirigintza araudia moldatuz.	Hirigintza Teknikariak		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		3.1.3. Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriaren herriguneeen arteko konektibitatea hobetzeko eta oztopoak gainditzeko aukerak aztertu (AP-1 eta N-622 sortzen duten haustura).	Hirigintza Teknikariak		Medio-Ertaina	Baja-Baxua
		3.1.4. Ondategi eta Gopegiren udalerriko buru papera mantentzeko irizpideak eta neurriak sartu Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriaren.	Hirigintza Teknikariak		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		3.1.5. Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriaren eraikinen kanpoko itxurarekin zerikusia duten neurriak arautu, paisaia modu egokian integratu daitezkeen eta udalerrian herri bakoitzaren nortasuna errespetatu dezaten.	Hirigintza Teknikariak		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		3.1.6. Udalerriko araudiari lotuta lehenengo sektorea sustatzeko ekimenak aurrera eramane.	Hirigintza Teknikariak		Medio-Ertaina	Media-Ertaina

ILDOA	PROGRAMA	EKINTZA	RESPONSABLE/ ARDURADUNA	CORRESPONSABLE/ ERANTZUNKIDE	PLAZO/EPEA	PRIORIDAD/ LEHENTASUNA
IE.3 BERTAKO IZAERA PROPIOA KONTSERBATZEA	3.2 Udalerriaren izaera landatarrira kontserbatzea, baita auzo bakoitzaren nortasuna ere	3.2.1 Aurretik existitzen diren etxebizitza eta eraikinen zaharberritzea sustatu (bai arauditik, baita neurri fiskal/ekonomikoen bidez).	Hirigintza Teknikariak		Largo-Luzea	Media-Ertaina
		3.2.2 Bigarren etxebizitzaren eta etxebizitza hutsen kopurua murrizteko, etxebizitzaren erabilera printzipala sustatuko duten neurriak hartu.	Alkatetza	Idazkaritza	Medio-Ertaina	Baja-Baxua
		3.2.3 Eskualdeko Landa Garapen Elkartearen aktiboki parte hartzen jarraitu.	Alkatetza	Udal ordezkaria LGEan	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		3.2.4. Udalerriko landa ustiaketaren uraren horniketa, kontsumoa eta saneamenduarekin zerikusia duten alderdiak sartu lehenengo sektorea sustatzeko martxan jartzen diren ekimenen artean.	Zigoitiko Ur Patzuergoa		Corto-Motza	Media-Ertaina
		3.2.5. Herritarrak lehen sektoreak udalerrian sortzen dituen onuren inguruan sentsibilizatu, baita berau laguntzeko behararen inguruan ere.	Landa Garapen Elkarteak		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		3.2.6 Udal diru-laguntzen lerro espezifiko bat sortu lehen sektorean lan egiten duten pertsonen zuzendua, trebakuntza eta esperientzien elkartrukatze iharduerak eta udalerrian bestelako ekitaldiak antolatuz (erakusketak, azokak, lehiaketak, etab.).	Alkatetza	Kultura Batzordea	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
	3.3 Zigoitiako ondare historiko-kulturala kontserbatzea eta balioan jartzea	3.3.1 Zaitegiko Gazteluan kata arkeologiko bat egin.	Alkatetza	Zaitegi eta Letonako Batzar Administrazioak	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		3.3.2 Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean ondasun kulturalen katalogoa egin	Hirigintza Antolamendurako Aholkularitza Batzordea		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
	3.4 Euskaraz geroz eta gehiago bizitzea	3.4.1. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian zehazten diren ekintzak martxan jarri eta euskara ikasteko, zein euskararen sustapenerako aktibitateak antolatuz, bereziki Zigoitia Euskaraz, diru-laguntzen lerroa sendotu.	Euskara Teknikaria		Largo-Luzea	Alta-Altua
		3.4.2 Udal aktibitateetan eta Udaletxeak %100ean diruz laguntzen dituen euskararen presentzia handitu.	Euskara Teknikaria		Largo-Luzea	Alta-Altua
		3.4.3 Koadrillako euskara teknikariaren postua finkatu.	Alkatetza	Euskara Teknikaria	Corto-Motza	Alta-Altua

ILDOA	PROGRAMA	EKINTZA	RESPONSABLE/ ARDURADUNA	CORRESPONSABLE/ ERANTZUNKIDE	PLAZO/EPEA	PRIORIDAD/ LEHENTASUNA	
IE.4 UDALERRIAREN BEHARREI EGOKITUTAKO ETXEBIZITZAK IZATEA, ETA KALITATEZKOAK	4.1 Bameko eskariari egokitutako etxebizitzaren eskaintza lortzea	4.1.1 Babes Ofizialeko Etxebizitza eta alokairuko gizarte etxebizitzak indartu, beharrezkoak diren ekimenak burutuz Eusko Jaurlaritzarekin Gizarte etxebizitzarako.	Alkatetza	Hirigintza Teknikariak	Largo-Luzea	Media-Ertaina	
	4.2 Iraunkorra den etxebizitza- parkea egotea sustatzea	4.2.1 Udalerrian etxebizitza bioklimatikoen eraikuntzarako irizpideak garatu.	Hirigintza Teknikariak/ Hirigintza Antolamendurako Aholkularitza Batzordea	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria	Medio-Ertaina	Baja-Baxua	
IE.5 KALITATEZKO HIRI-PAISAIAN GOZATzea	5.1 Kalitatezko espazio ireki publikoak edukitzea	5.1.1 Udalerrian hiriko espazio publiko ireki berrien garapena aztertu	Hirigintza Teknikariak	Hirigintza Antolamendurako Aholkularitza Batzordea	Largo-Luzea	Baja-Baxua	
		5.1.2 Bengolarrako parkearen baloreak sustatu eta bere mantenimendua hobetu.	Alkatetza	Hirigintza Teknikariak	Medio-Ertaina	Media-Ertaina	
	5.2 Hondakinen bilketa ondo kudeatzea, eta bide garbikuntza egokia izatea	5.2.1 Hondakinen sorrera eta gaikako bilketaren inguruko datuak udalerrira ezagutzeko Gorbeako Inguruen Partzuergoko kontrata berriak ezarri dituen baliabideak martxan jarri.	Gorbea Inguruko Patzuergoa			Corto-Motza	Media-Ertaina
		5.2.2 Udaletxe eta Batzar Administratiboaren arteko kale garbiketarako hitzarmena mantentzearen egokitasuna aztertu, beharrezkoak estimatzen diren aldatetaz sartuz, eta Batzar Administratibo guztietara zabaltzen saiatu.	Administratiboekin Harremanetarako Batzordea			Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		5.2.3 Herri guztietan hondakinen ontziak lurperatzearen interesa aztertu.	Administratiboekin Harremanetarako Batzordea			Medio-Ertaina	Baja-Baxua
		5.2.4 Ontzien kokapena herritarren eskaerei zentzuzkoak egokitzeko aztertu.	Batzar Administratibo guztiak			Medio-Ertaina	Baja-Baxua
		5.2.5 Udaletxe eta Batzar Administratiboaren artean etxeko hondakin arriskutsuen bilketa eta kudeaketarako ikuspegi orokorrari buruz hausnartu.	Administratiboekin Harremanetarako Batzordea			Medio-Ertaina	Alta-Altua
		5.2.6 Antzematen diren kontrolrik gabeko hondakinak botatzeko lekuetan jardun.	Alkatetza	Arabako Foru Aldundia / Ingurumen Saila		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		5.2.7 Arroparen jasotzea maiztasun egokia duela bermatu.	Gorbea Inguruko Patzuergoa			Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		5.2.8 Hondakinen inguruko sentsibilizazio ekintzak burutzen jarraitu, herritarren artean gizalegezko jokoak sustatzeko bategi ere.	Gorbea Inguruko Patzuergoa			Largo-Luzea	Alta-Altua

ILDOA	PROGRAMA	EKINTZA	RESPONSABLE/ ARDURADUNA	CORRESPONSABLE/ ERANTZUNKIDE	PLAZO/EPEA	PRIORIDAD/ LEHENTASUNA
IE.6 OSASUNGARRIA ETA ZENTZUMENENTZAT ATSEGINA DEN INGURUA KONTSERBATZEA	6.1 Jarduera ekonomikoek ingurumena errespetatzen bultzatzea	6.1.1 Udalerriko industrialdeetan eta beraien eraginpean dauden zonaldeetan ingurumen egoera aztertzeko, inplikaturik dauden eragileek (administrazioa eta enpresa) arteko ekintza baliotsi eta indartu.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Baja-Baxua
		6.1.2 Jardueren Erregistroentzako datu base bat sortu udalerriko ingurumen araudiaren betearazpena bermatzeko, Ingurumenaren Babesa, zaintza eta ikuskapen lanak erraztuko dituenak.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		6.1.3 Lur sailak ongarrizko oilo-simaur eta zelulosaren erabilpenaren inguruan sentsibilizazio eta informazio ekintzak garatu.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Corto-Motza	Alta-Altua
		6.1.4 Lursailak ongarrizko oilo-simaurra erabiltzen duten jabeek Batzar Administratiboek aurreikusitako urteroko erabilpen datuak informatzeko eskatu.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Alta-Altua
IE.6 OSASUNGARRIA ETA ZENTZUMENENTZAT ATSEGINA DEN INGURUA KONTSERBATZEA	6.2 Arrisku natural eta teknologikoak aurreikustea	6.2.1 Lur Urbanoan dauden ur-hartuneak seinalizatu, frogatu eta aztertu.	Hirigintza Teknikariak		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		6.2.2 Suteen kontrako karro bat edo gehiago eskatu eta herritarrei zuzendutako erabilpen kurtsoak ere Arabako Foru Aldundiari.	Alkatetza	Hirigintza Teknikariak	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
	6.3 Zarata, aire, ur eta lurzoruei dagokienez, goreneko kalitatea bilatzea Zigoitian	6.3.1 Ingurugiroko Ordenantza bat idazteko eta onartzeko interesa aztertu.	Alkatetza	Osoko Bilkura	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		6.3.2 Zaitegi zeharkatzen duen autobidearen tramo osoan pantaila akustikak jartzeko Arabako Foru Aldundiaren Errepideen Sailari egindako eskariaren jarraipen egokia egin eta Apodaka, Etxabarri-Ibiña, Mendarozketan edo Letonan eskaera berdintsuak egitea baliotsi.	Zaitegi, Apodaka, Etxabarri-Ibiña, Mendarozketa eta Letonako Batzar Administratiboak		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		6.3.3 Balizko kutsakorrek diren iharduera edo instalazioak jasan duten edo jasaten duten lurretan aritzeko ekin.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Largo-Luzea	Baja-Baxua
6.4 Herritarren segurtasuna bermatzea	6.4.1 Arriskutsuak izan daitezkeen animalien jabetza arautzen duen Ordenantza nola betearazi daitezkeen aztertu.	Idazkaritza	Alkatetza	Medio-Ertaina	Alta-Altua	

ILDOA	PROGRAMA	EKINTZA	RESPONSABLE/ ARDURADUNA	CORRESPONSABLE/ ERANTZUNKIDE	PLAZO/EPEA	PRIORIDAD/ LEHENTASUNA
IE.7 UDALERRIAREN BAITAN ETA HONEN INGURUEKIN MUGIKORTASUN EGOKIA ESKAINTZEA	7.1 Herriguneetako eta hauen arteko, nahiz udalerritik kanpoko mugikortasunean, ibilgailu partikularren erabilera suposatzen ez duten aukerak garatu	7.1.1 Udal Mugikortasun Plan bat idaztea egokia ote den aztertu, mugikortasunaren inguruan udalak burutzen dituen ekintza guztiak integratuko dituen, ikuspegi global batekin	Alkatetza	Hirigintza Teknikariak	Corto-Motza	Media-Ertaina
		7.1.2 Garraio publikoaren eskaintza herritarren eskaerei egokitzeko eskatu, dagokien erakundeetan egin beharreko lanak eginez.	Alkatetza		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		7.1.3 Taxiaren lizentziaren jabearekin hiri garraioa hitzartu.	Alkatetza	Osoko Bilkura	Medio-Ertaina	Alta-Altua
		7.1.4 Garraio bonoa udalerrian jar dezala eskatu Arabako Foru Aldundiari.	Alkatetza		Corto-Motza	Alta-Altua
		7.1.5 Bidegorri, oinezko bide, herri-bide eta pisten sare bat diseinatu, herritarrentzat funtzionalak izango direnak, eta aldi berean nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako lanen beharrak, baita aisialdi erabileren beharrak ere asetzen dituen, eta segurua dena	Hirigintza Teknikariak	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria	Medio-Ertaina	Alta-Altua
		7.1.6 Bidegorri, oinezko bide, herri-bide eta pista sarearen erabilera antolatu eta arautu, aisialdiko erabileren presioa kontrolatzeko, motordun ibilgailuen erabileragatik eman daitekeen hondamena ekiditeko eta lehen sektorearen erabilerak errazteko	Hirigintza Teknikariak		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		7.1.7 Herritarrei bidegorri, oinezko bide, herri-bide eta pista sarearen inguruko informazioa helarazi (mapa, erabilera arauak, eta abar)	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Baja-Baxua
		7.1.8 Vitoria-Gasteiza joateko autoa partekatzeke ekimena martxan jarri	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		7.1.9 Udaletxeak Arabako Foru Aldundiari hiriarterko garraioa hitzartzen utz diezaiola eskatu.	Alkatetza		Corto-Motza	Alta-Altua
	7.2 Bide sarearen egoera onen mantentzea	7.2.1 Arabako Foru Aldundiari A-3608 errepidearen bihurguneak konpondu eta udalerriko hainbat herri batzen dituzten bideak hobetu dezala eskatu.	Alkatetza	Hirigintza Teknikariak	Corto-Motza	Media-Ertaina
		7.2.2 Gorostizarako bidean pisu handiko garraioak duten murrizketari irtenbiderik onena eztabaidatu eta adostu.	Akosta eta Zestafeko Batzar Administratiboak		Largo-Luzea	Media-Ertaina
		7.2.3 Bidegorri, oinezko bide, herri-bide eta pista sarean egokitzapena egiteko beharrak planifikatu, aurreikusitako erabileren eta egungo egoeraren arabera, dagozkien lehentasunak ezarri.	Hirigintza Teknikariak		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
	7.3 Istripuak guxtiztea udalerrian	7.3.1 Jabetza lokala duten bideen seinalizazioa hobetu	Hirigintza Teknikariak		Medio-Ertaina	Baja-Baxua
		7.3.2 Bide hezkuntzaren eta mugikortasunaren praktika onen inguruko aldikako kanpainak burutu.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Corto-Motza	Media-Ertaina

ILDOA	PROGRAMA	EKINTZA	RESPONSABLE/ ARDURADUNA	CORRESPONSABLE/ ERANTZUNKIDE	PLAZO/EPEA	PRIORIDAD/ LEHENTASUNA
IE.7 UDALERRIAREN BAITAN ETA HONEN INGURUEKIN MUGIKORTZ	7.4 Mugikortasun segurua eta lasaia bermatzea	7.4.1 Ondategiko bi tabernen artean, Zaitegiko zeharbidean, Gorostizan eta Etxaguenen abiadura murriztekoak edo zeharbideak jar daitezzen eskatu.	Alkatetza	Hirigintza Teknikariak	Corto-Motza	Alta-Altua
		7.4.2 Zaitegin oinezko bide, geralekua eta markesina jar dezaten eskatu.	Alkatetza	Zaitegiko Batzar Administratiboa	Corto-Motza	Alta-Altua
		7.4.3 Apodaka eta Eriben pisu handiko kamioen pasatzea nola kontrolatu aztertu.	Apodaka eta Eribeko Batzar Administratiboak		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		7.4.4 Arabako Foru Aldundiari Muruatik Etxaguenerako desbiderapenaren eta Eriben rotonda bana eraikitzeak aukerak azter ditzan eskatu.	Alkatetza	Hirigintza Teknikariak	Corto-Motza	Alta-Altua
		7.4.5 Legutioko zubiaren lanak direla eta, Arabako Foru Aldundiari trafikoaren desbiderapenaren aurreikuspenak eta zirkulazioa kontrolatzeko neurriei buruzko informazioa eskatu.	Alkatetza		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		7.4.6 Ondategiko igerilekuetan autobusak aparkatzeko lekuak sortzeko aukerak aztertu.	Hirigintza Teknikariak		Largo-Luzea	Baja-Baxua
	7.5 Zigoitiako herriguneetan eta eraikin publikoetan irisgarritasuna hobetzea	7.5.1 Udal Irisgarritasun Plana idatzi.	Hirigintza Teknikariak		Largo-Luzea	Media-Ertaina
IE.8 PAISAIA ETA NATURAREN BALIOAK BABESTE	8.1 Natura eta paisaiaren balioak ezagutzea, eta hauek kontserbatzeko helburu eta neurriak	8.1.1 Hiri Antolamendurako Plan Nagusi berriak udalerriko balio natural eta paisajistikoak modu egokian islatzen dituela ziurtatu,aldi berean hauek jasaten dituzten presio eta arriskuei aurre eginez	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Corto-Motza	Media-Ertaina
		8.1.2 Lendiako zonalde karstikoa hobetu eta balioan jarri erabilpen publikoa izan dezan.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria	Apodakako Batzar Administratiboa	Largo-Luzea	Media-Ertaina
		8.1.3 Ehiza esparruak herri guneetara heltzearen alde onak eta txarrak aztertu eta herritarrei beraien funtzionamendu eta mugei buruz informazioa eman.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
	8.2 Zigoitiako natura eta paisaiaren balioak jasaten dituzten inpaktu, mehatxu eta arriskuei aurre egitea	8.2.1 Gorbeako gailurrera igotzen diren bideen seinalizazioa hobetu dadin eskatu.	Alkatetza		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		8.2.2 Otsoaren kudeaketari buruzko udalerrriaren jarrera zehazteko hausnarketa prozesu bat hasi eta Arabako Foru Aldundiari helarazi.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Media-Ertaina

ILDOA	PROGRAMA	EKINTZA	RESPONSABLE/ ARDURADUNA	CORRESPONSABLE/ ERANTZUNKIDE	PLAZO/EPEA	PRIORIDAD/ LEHENTASUNA
IE.8 PAISAIA ETA NATURAREN BALIOAK BABESTEIA	8.3 Zigoitiako natura eta paisaiaren balioen antolamendu eta kudeaketan aktiboki parte hartzea	8.3.1. Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarri Natura 2000 sareko BZGetatik udalerrian eragina duten antolatze dokumentuen idazketa lanen nondik norakoak ezagutzeko asmoz, Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriak markatzen dituen neurriak hauekin bateragarriak direla ziurtatzeko.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Corto-Motza	Media-Ertaina
		8.3.2 Zizen bilketa arautzeko aukerak aztertu.	Batzar Administratiboekin Harremanetarako Batzordea		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		8.3.3 Ehiza eta zizen bilketaren inguruko sentsibilizazio ekimenak burutu.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		8.3.4 Gorbeia Parke Naturaleko antolaketa eta kudeaketan parte hartu aktiboki, bai Udaletxe eta Batzar Administrazioen partez Patronatuan, zein herritarren partez.	Alkatetza		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
IE.9 BALIABIDE NATURALEN ERABILERA IRAUNKORRA SUSTATZEA	9.1 Uraren kontsumoa murriztea, eta erabili ondoren garbi bueltatzea; honela bakarrik izango da baliabide berriztagarri	9.1.1 Ur hornidura eta saneamendu sarean hobekuntza eta inbertsio plan bat idatzi, behin Udaletxe eta Batzar Administrazioen artean egungo egoeraren balorazio bat egindakoan.	Zigoitiko Ur Patzuergoa		Largo-Luzea	Media-Ertaina
		9.1.2 Arabako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarri ur hornidura eta saneamendu sarean hobekuntza eta inbertsio planaren finantziarioan laguntzak bilatzeko.	Zigoitiko Ur Patzuergoa		Largo-Luzea	Alta-Altua
		9.1.3 Udalerrian ematen den uraren behar eta kontsumoen jarraipena egiteko eraginkorra den sistema bat ezarri Udaletxe eta Batzar Administrazioen artean, Patzuergoaren barruan.	Zigoitiko Ur Patzuergoa		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		9.1.4 Uraren horniketarako ezartzen diren tarifen egokitasuna aztertu, zerbitzua defizitarioa ez izatea lortzeko.	Zigoitiko Ur Patzuergoa		Largo-Luzea	Media-Ertaina
		9.1.5 Berdeguneen mantenimendurekin eta igerileku partikularrekin zerikusia duten uraren kontsumo handiak moteldu edo zigortu.	Zigoitiko Ur Patzuergoa		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		9.1.6 Bertako administrazioek berdegune publikoak mantentzeko ura aurrezteko neurri eta baldintzak garatu eta onartu.	Alkatetza	Hirigintza Teknikariak	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		9.1.7 Xero-lorenzaintzaren irizpideen araberako diseinua eta mantenimendua sustatu berdegune publiko eta pribatuetan.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria	Hirigintza Teknikariak	Medio-Ertaina	Alta-Altua
		9.1.8 Uraren kontsumoaren murrizketarako sentsibilizazio kanpainak egin herritarren artean.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Alta-Altua

ILDOA	PROGRAMA	EKINTZA	RESPONSABLE/ ARDURADUNA	CORRESPONSABLE/ ERANTZUNKIDE	PLAZO/EPEA	PRIORIDAD/ LEHENTASUNA
IE.9 BALIABIDE NATURALEN ERABILERA IRAUNKORRA SUSTATZEA	9.2 Energia kontsumoa gutxitzea, eta energia berriztagarrien ekoizpen eta erabilera handitzea	9.2.1 Herritarrei eta udalerriko industriari zuzendutako sentsibilizazio kanpainak egin energiaren kontsumoa murrizteko	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		9.2.2 Udalerrian energia berriztagarriak erabiltzeko aukera egokienak aztertzen jarraitu, biomasa bereziki, eta hauen hedapena sustatzen jarraitu.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Largo-Luzea	Media-Ertaina
		9.2.3 Udal instalazioen inguruko auditoretza energetikoan gomendatutako ekimenak martxan jarri	Hirigintza Teknikariak		Largo-Luzea	Alta-Altua
		9.2.4 Herri guneeetan dauden transformadore elektrikoaren kokapena aldatzeko aukerak aztertu.	Hirigintza Teknikariak		Medio-Ertaina	Baja-Baxua
		9.2.5 Udaletxe eta Batzar Administrazioen artean bertako administrazioaren kontsumo energetikoaren jarraipena egiteko sistema adostu eta udal ekipamenduen eta argiteri publikoaren kontsumoen erregistro bat sortu.	Batzar Administrazioekin Harremanetarako Batzordea		Medio-Ertaina	Alta-Altua
	9.3 Onura publikoko mendiak iraunkortasunezko irizpideekin kudeatzea	9.3.1 Baso probetxamenduei buruzko ordenantza bat idatzi.	Alkatetza	Osoko Bilkura	Largo-Luzea	Media-Ertaina
	9.3.2 Udalarenak eta Batzar Administrazioenak diren Onura Publikoaren Mendiaren antolaketa eta kudeaketa aktiboki parte hartu.	Batzar Administrazioekin Harremanetarako Batzordea		Medio-Ertaina	Media-Ertaina	
IE.10 JARDUERA EKONOMIKO ANITZAK, BERTAN SORTUTAKOAK, ETA KALITATEZKO ENPLEGUA BULTZATZEA	10.1 Udalerrian enplegu kalifikatua eta kalitatezkoa sortu dadin bultzatzea	10.1.1 Zigoitiko enpleguaren kalitatearen inguruko hausnarketa sortuko duen ekintza bat diseinatu, interesatuta egon daitezkeen eragile guztiekin.	Ekonomi Sustapenerako, Turismo eta Enplegu Teknikaria		Largo-Luzea	Media-Ertaina
		10.1.2 Emakumeen lanaren kalitatea hobetzeko aukerei buruz hausnartu.	Ekonomi Sustapenerako, Turismo eta Enplegu Teknikaria		Largo-Luzea	Media-Ertaina
		10.1.3 Udal kontratazioak udalerriko jendearekin egitearen aukerak aztertu, ahal den neurrian, kanpoko enpresei ateratzea ekidituz.	Alkatetza	Idazkaritza	Medio-Ertaina	Media-Ertaina

ILDOA	PROGRAMA	EKINTZA	RESPONSABLE/ ARDURADUNA	CORRESPONSABLE/ ERANTZUNKIDE	PLAZO/EPEA	PRIORIDAD/ LEHENTASUNA
IE.10 JARDUERA EKONOMIKO ANITZAK, BERTAN SORTUTAKOAK, ETA KALITATEZKO ENPLEGUA BULTZATZEA	10.2 Jarduera ekonomikoak dibertifikatzea, bertako ekimenak sustatzea, eta udalerriko jardueren balio erantsia ekarriko dieten hobekuntzak bultzatzea	10.2.1 Enplegu eta iharduera ekonomikoei dagokionez, baita ingurumen zerbitzuak eskaintzeko eta olgeta iharduetarako euskarri moduan, udalerriko jabego publikoko baso baliabide ugariak eskaintzen dituzten aukeren inguruan hausnartu.	Batzar Administratiboekin Harremanetarako Batzordea		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		10.2.. Hirigintza Antolamendurako Plan Orokor berria aurrerago emango den udalerriarren garapen industrialaren kokapena zehaztu eta dimentsionatu, Zigoitiko balio natural eta baso eta landa baliabideentzat mehatxu bat izango ez delarik.	Hirigintza Teknikariak		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		10.2.3 Zailtasun maila eta luzeera desberdinetako oinezko bide eta ibilbide turistikoak diseinatu, seinalizatu eta zabaldu, udalerriko baliabide turistiko, natural eta kulturalak bilduko dituztenak.	Landa Garapen Elkartea		Largo-Luzea	Media-Ertaina
IE.11 GOBERNANTZA HOBEA IZATEA: HURBILEKOAK, IRAUNKORRAK, ERAGINKORRAK ETA HAIEN ARTEAN KOORDINATUAK DIREN TOKI-ADMINISTRATZIOAK	11.1 Udaleko gaietan herritarren partaidetza sustatzea, gorpuztea eta arautzea	11.1 Kultura Kontseilua mantendu eta bere protagonismoa eta eginkizunak indartu, ahal bada.	Alkatetza	Kultura Batzordea	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		11.1.2 Herritarren parte hartzea sustatu, artikulatu eta arautzeko bideak egokiak ote diren hausnartu.	Alkatetza	Idazkaritza	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		11.1.3 Herritarren parte hartzea udal planifikazioan eta kudeaketan duen emaitzak zabaldu, herritarrek modu biziago batetan parte hartzera animatzeko.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		11.1.4 Tokiko Agenda 21aren inguruko informazio eta sentsibilizazio ekimenak gauzatu.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		11.1.5 Teknologia berriek udalerrian herritarren parte hartzea handitzeko eta udal gestioak egiteko aukerak aztertu.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		11.1.6 Aurrekontu parte hartzaileen ekimenekin jarraitu.	Alkatetza	Idazkaritza	Medio-Ertaina	Alta-Altua
	11.2 Udala eta Administrazio Batzarren arteko koordinazioa eta lanbidetza egokiak ziurtatzea	11.2.1 Batzar Administratiboekin harremanetarako Batzar bat sortu.	Alkatetza	Osoko Bilkura	Corto-Motza	Alta-Altua

ILDOA	PROGRAMA	EKINTZA	RESPONSABLE/ ARDURADUNA	CORRESPONSABLE/ ERANTZUNKIDE	PLAZO/EPEA	PRIORIDAD/ LEHENTASUNA
IE.11 GOBERNANTZA HOBEA IZATEA: HURBILEKOAK, IRAUNKORRAK, ERAGINKORRAK ETA HAIEN ARTEAN KOORDINATUAK DIREN TOKI-ADMINISTRATIOAK	11.3 Eskualde mailako sinergiak erraztea	11.3.1 Udalerrian turismoa bultzatzeko asmoz, Koadrillarekin sinergiak sustatu.	Ekonomi Sustapenerako, Turismo eta Enpegu Teknikaria		Medio-Ertaina	Baja-Baxua
	11.4 Udal plangintza eta kudeaketan iraunkortasun irizpideak sartzea, eta iraunkortasuneko gaitan giza-balibide minimoak bermatzea	11.4.1 Ingurumen kudeaketa eta Iraunkortasunaren udal ekintza guztiei buruz ikuspegi orokor bat eman eta integratzen duen udal administrazioaren Ingurumen Kudeaketa eta Iraunkortasunaren Plan bat idazteko egokitasuna aztertu.	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		11.4.2 Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen iunguruan barne sentsibilizazio ekimenak burutu	Tokiko Agenda 21eko Teknikaria		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		11.4.3 Udalerriko talde politikoaren artean akordioak eta helburu komunak finkatu udal-mailako berdintasunaren inguruan.	Alkatetza	Osoko Bilkura	Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		11.4.4 Udal kontratazio publikoetan baldintza sozialak sartu.	Idazkaritza		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		11.4.5 Berdintasunaren gaian Arabako Foru Aldundiak Lurralde Historikoan berriki sortu duen udalerrri txikientzako aholkularitza teknikoaren eskaera kudeatu.	Alkatetza		Medio-Ertaina	Media-Ertaina
		11.4.6 Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriaren iraunkortasun irizpideak sartu	Hirigintza Teknikariak		Medio-Ertaina	Alta-Altua
		11.4.7. Tokiko Agenda 21eko aholkularitza teknikoa finkatu eta honetarako baliabidak udalerrriaren beharrei egokitzen direla aldiro aztertu.	Alkatetza	Idazkaritza	Medio-Ertaina	Alta-Altua
		11.4.8 Tokiko Agenda 21aren jarraipena Batzar Administratiboekin harremanen Batzordearen zereginen artean sartu.	Batzar Administratiboekin Harremanetarako Batzordea		Medio-Ertaina	Alta-Altua